



# ERROMERIA SANTA KRUTZ ERMITARA

Gaur egingo dute Leitzako ermitara urteroko erromeria; meza izango da, bazkaria, musika eta dantza >7

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2008-07-25

VIURTEA 1.495 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## HASI DIRA LUZEENAK

**VILLABONA** Hutsunea Betez emakume taldeko kideak izan ziren jaien hasierako suziria bota zutenak atzo

**EGITARAU** Zortzi egunez festak ez du etenik izango; Gazte Eguna eta preso eta errefuxiatuen gaua, gaur 2-3



Txupinazoarekin batera, Hutsunea Betez taldeko kideek globo txuri eta gorriak askatu zituzten. I. GARCIA

### «Agintarien jarrera» salatu du AHT Gelditu! Elkarlanak

**ZIZURKIL** AHT «gelditzea eta gaiaren inguruko eztabaida sortzea» eskatu zuten atzoko agerraldian 6

### 580 kiloko sokatira finala etzi izango da Areson

**SOKATIRA** Finalaurreko saioa bihar jokatuko dute Gaztelun 7

### Tolosako Santa Maria kaleko lokal batean sutea izan da 3

**Juan Mari Jauregiren omenezko ekitaldia izango da datorren asteartean**

**TOLOSA** 8 urte beteko dira ETAK hil zuenetik; Fronton kafetegian izango da 3

**MIRARI**  
Parafarmazia

- \* HAURREN ELIKADURA ETA HIGIENEA
- \* HELDUEN EDERTASUNA ETA HIGIENEA
- \* HAURREN ETA HELDUEN DERMOKOSMETIKA



Kale Berria, 56 • Billabona • Tel.: 943 692 351  
parafarmazia.mirari@telefonica.net



**JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA**

- Ikastolaren eskaintza
- Irakatsi
- Hezi
- Pertsona osatu





Txarangaren musikak alaitu zuen txupinazoaren ueña. Ondoren, kalejiran abiatu ziren herrian zehar. I. GARCIA

# ORAINDIK ASTEBETE

**Villabona** » Hutsunea Betez emakume taldeak botatu zuen jaiei hasiera eman zuten txupinazoa, genero indarkeriarengatik hildakoak gogoratuz.

## IMANOL GARCIA

Eskualdeko festa luzeenak hasi dira. Atzoko egunarekin kontatuta, zortzi egunez festetan izango dira Villabonan, Santio egunaren bezperan hasi eta San Inazio egunera arte. Aurten sortu den Hutsunea Betez emakumeen taldeak botatu zuen txupinazoa. Festa zoriotsuak opa zituzten eta ondoren botatu behar zituzten globoen esanahia azaldu zuten: 44 globo gorri aurten genero indarkeriaz hil diren pertsona kopuru hori orotuz eta globo txuri ugari esperantza irudikatzen.

«Oso pozik» zeudela esan zuten txupinazoa botatzeagatik eta baita «aurten egin dugun lanarengatik eta urteetan jarraitzeko prest sen-

titzen gara». Horregatik gonbita luzatu zieten «gogoia duzueñi gure taldean parte hartzera». Jende dezente hurbildu zen plazara txupinazora. Ekitaldiari hasiera txalapartariet eman zieten eta ondoren Amaia Agirre bertsolaria bertsotan aritu zen. Horren ondoren etorri zen pregoiaren irakurketa, txupinazoa botatzea eta globoak askatzea. Goxoki ugari ere botatu zituzten Hutsunea Betez taldekoek haurren gozamenerako. Musika Iraunkorrek txaranga jarri zuen eta hauek kalejiran atera ondoren, erraldoi eta buruhandien txanda izan zen. Hauen kalejira Loatzo musika eskolako trikitilarietara alaitu zuten.

## Pilota partidak

Txupinazoaren aurretik, Olaederako frontoian ohi bezala izan zen mugimendurik. Bertan jokatu ziren Behar-Zana elkarteak antolatutako frontenis eta eskuz binakako txapelketa herrikoien finalak. Fronteniseko finalean iazko protagonistak berdinak lehiatu ziren eta orduan bezala, Xabi Agirrezabalak irabazi zion Xabi Aierzari. E-mailtza 22-16 izan zen. Eskuz binaka,



Hutsunea Betez taldeko kideak, oholitza gainean, txupinazoa botatu eta gero. HITZA

Eneko Arteagak eta Manex Arrietak 22 eta 16 gailendu zitzaizkien Egoitz Bengoetxea eta Xabi Aierzari.

Pilota partidak gaur izango dute jarraipena Amasa pilotalekuan, 12:00etan. Plako txapelketa herrikoian, Sarasua-Txapartegi asteasuarrak eta Urdanpilleta-Yuguekos billabonatarrek lehiatuko dira. Eskuz binakako senior mailako federatuetan Garate-Angulo (Zaramaga-Gasteiz) eta Goikoetxea-Esnaola (Beasain) ariko dira lehian.

## Nafar bandera

Aritz kultur elkarteak bultzatutako ekimen baten bidez, Villabona-

ko udaletxean, herriko bandera eta ikurrinaz gain, nafar bandera jarrita egongo da festek irauten duten bitartean. Besteak beste, nafar banderak «burujabetzarena, lurraldetasunarena, independentziarena, nazioartearen onarpenerena» dela diote eta erreferentzia guzti horiek, «ikurrinak biltzen ez dituenak, ez ditugu gure memoria historikotik baztertu behar».

## Gaurkorako

Santio Eguna izango da gaur eta ekitaldi ugari izango dira egun guztian zehar: diana, sokamuturra, herri krosa, pilota partidak, udal korporazioaren bista Santia-

go egoitzara, soka dantza...

Gaur ere Gazte Eguna izango da eta baita ere Preso eta Errefuxiatuen Gaua. Aipatu beharreko beste ekitaldia Eresargi abesbatzaren emanaldia da. 22:30ean egingo dute Gurea aretoan. Ahots lodietan, besteak beste, *Boga Boga*, *Festara* eta *Arun diran* abestuko dituzte; ahots zurietan, *Os Justi* (Eleanor Daley), *Varmlandsvisan* (Anders Fryxell Ande. A. Dahlgren) eta *Lainoak* (David Azurza); azkenik, ahots nahasietan, besteak beste, *Tres cantos andinos* (Dannte Andreo) eta *Swing low, sweet chariot* (Mol. Josly) abestuko dituzte.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Pixukideak.** Bi pixukide behar dira Villabonan konpartitzeko. 200 euro hilabeteko. Etxea egoera onean dago. Interesatuak deitu 667 0148 20ra.



Erraldoiek eta buruhandiek plazatik abiatu zuten kalejira. I. GARCIA



Frontenis Txapelketako azpitxapelduna, Xabi Aierza, eta txapelduna, Xabi Agirrezabala. I. GARCIA



Eskuz binakako txapelketa herrikoaren finalaren une bat. I. GARCIA



## Sutea Santa Mariako lokal batean

**TOLOSA** • Santa Maria kaleko lokal batek su hartu zuen atzo goizean. 12:00ak inguruan gertatu zen ezbeharrean ez en zauriturik egon. Suhiltzaileak berahala agertu ziren eta sua denbora gutxian itzali zuten.

Udaltzaingoak azaldutakoaren arabera ez dago ziur zerk eragin duen sutea. Auzotarren esanetan berriz, kandela bat piztuta izatean, honek sua piztu zuen eta bertan zeuden oihalak erretzen hasi ziren. ESTI EZEIZA

## Juan Mari Jauregiri omenaldia egingo diote datorren asteartean

**Tolosa** » Zortzigarren urteurrena beteko da ETAK hil zuela; 12:30ean izango da ekitaldia Fronton kafetegiaren ondoan.

### ERREDAKZIOA

ETAK hil zuela zortzigarren urtea betetzen denean, Juan Mari Jauregiri omenaldia egingo diote datorren asteartean, hilak 29. Omenaldia 12:30ean izango da, Tolosako Fronton kafetegiaren ondoko lorategian, Jauregiren omenez dagoen oroigarrian. PSE-EEK bidali duen ohar batean zehazten denez, ekitaldian izango dira, besteak beste, Jose Manuel Rodriguez, Terorismoaren Biktimen Babeserako Goi-komisarioaren zuzendari orokorra, Maixabel Lasa, Jauregiren alarguna eta Biktimen Laguntzarako Bulegoaren zuzendaria, eta Oscar Renedo, PSE-EEren bozeramailea Tolosako Udalean.

Juan Mari Jauregik 49 urte zituen ETAK hil zuenean. Gipuzkoako gobernadore zibila izan zen 1994tik 1996ra. Kargu horretarako izendatu aurretik, PSE-EEren zinegotzia izan zen Tolosako Udalean, 1991. urtetik aurrera. Zinegotzi zela, Kirol sailaren ardura zuen. Jauregi 1989 urtean afiliatu zen PSE-EEra. Aurretik Espainiako Alderdi Komunistaren kidea izan zen.



Aurreko urte batean egindako omenaldiaren une bat. J. SAIZAR



**Nekane Alzpun**  
Eli Carrasco  
Tel.: 943 69 31 13  
Errata 7, behea  
VILLABONA  
arindu@euskalnet.net

Tolosaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritzan edota  
Euskal Filologian  
lizentziatuak  
edo ikasleak behar ditu  
lan poltsa osatzeko.**

Interesatuek deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira

## Festak eta udal webgunek



### » Kale kantoitik

Joxemi Saizar

U da pasatzen ari da berri handirik gabe. Eguraldia ez da iragarri zuten bezain txarra izaten ari eta tarteka egun onak ere izan ditugu gurean. Berri nagusienak herrietako jaiak izaten dira egun hauetan gure egunkarian. Bestelako aktibitatea jaitsi egiten baita asko. Orainxe bertan ospatzen ari direnak Villabonako santioak dira. Eta hurrengoak Altzoko sainazioak izango dira. Herririk kanpora gabiltzanok gustura jasotzen dugu jai hauetako etabestelako berriak. Horretarako HITZA bera da bide ona. Beste bidea udaletako webgune ofizialak izan daitezke. Herriaren berri ematen dute, baina kasu askotan ez dute jaien berri ematen. Urteko ekitaldirik garrantzitsuena herri askotan. Aipatu-

tako bi herri horietako udal webgunean sartu eta konproba dezakezue.

Abuztuan izango dira gure eskualdeko herri gehienetako festak. Egunkari hau oporretan egongo da, baina Ibarra, Berastegi, Areso eta Leitzako irakurleek izango dituzte gehiagari bereziak bere jaiak buruz. Atsedean garaia iritsi eta festak aprobetxatzeko unea da. Urteko lanak amaitu dira eta ondo pasa behar da. Baina pasa gabe, badakizue. Irailarekin batera iritsiko da berriz ere lanerako tartea.

Uda pasatzen ari da eta egunkari honek ere laster hartuko ditu oporrak. **Kale kantoitik** aritu naiz irailetik hona, nire begi, belarri eta beste zentzumenak jarriz zuei kontatzeko ikusi, entzun eta sentitutakoa. Zuekin konpartitu ditut nire iritziak eta komentarioak gure eskualdean gertatutako azte aste. Ikasturtea amaitzearekin sail honi ere amaiera emango diot. Amaiera iritsi zaio. Opor ondoren nire iritziak eta komentarioak nire ingurukoentzat izango dira. Eta agurtzeko, bertsolari zaharrei ikasitako esaldiarekin bukatuko dut: «Ongi esanak ondo hartu, eta gaizki esanak barkatu».

### Laburrak

#### Paleta txapelketako azken partidak astlehenean

**TOLOSA** • Tolosa CFk antolatutako paleta txapelketa azken txanpara iritsi da eta datorren astlehenean jokatuko dira finalurrekoak. Beraz, 19:00etan hasita, lehen partida Lontxo-Nazabal eta Zubeldia-Goitia bikoteen artekoa izango da. Ondoren, Niko eta Txepe, Apeztegia eta Maizaren kontra ariko dira.

#### Alkizako Irastorza lehiatuko da gaur pilotan

**AMEZKETA** • Gaur lau partida jokatuko dira Amezketa, 21:00etan aurrera. Horietatik bakarrean jokatuko dute eskualdekoek, lehendabizikoan hain zuzen ere. Honenbestez, kadeteen mailan, Andoaingo Irastorza eta Alkizako Sukia izango dira aurrez aurre. Ondoren, pilota partida gehiago.

### Zurea da hitza

info

Kexak, iradokizunak, eskertzak... biltzen ditugu ostiralero atal honetan. 'www.tolosaldeko-hitza.info' webgunean, tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbidean edota 943 655695 telefono zenbakian utz ditzakezue.

#### Zorionak Tolosako neska arraunlariei!

Atzo arratsaldean telebista ikustean, arraunaren inguruko albiste bat entzun nuen. Bertan Gipuzkoako nesken traineruen txapelketaz ari ziren eta izugarriko poza eman zidan irudi haiek ikusteak. Arrauna beti gizonen kiroltzat ikusia izan da (tamalez) baina bistan dago gazak aldatuz doazela eta gaur egungo neskek gero eta indartsuagoak direla. Dirudenez, Tolosako hirugarren geratu ziren, eta esan daitezke ez dela emaitza ona. Baina berdin dio. Kontu hori aritzea da eta gainera, lehen urtea izateko, nahikoa ari dira egiten. Hemendik, zorionak eman nahi dizkiet neska horiei. Tolosa bezalako herri batentzat izugarrikoa baita horrelako talde bat izatea. Kontuan hartuta gainera,

ez dela kostan dagoen hiri bat. Horregatik, oraingoan hirugarren egin baduzue ere, ziur nago hurrengoan lehen postuan geratuko zarete. Animo eta muxu bat, eta segi horrela.

**Tolosar bat.**

#### Ibarrako sega apustua

Ibarran orain dela aste batzuk sega apustua jokatu zen. Egualdi txarra egin zuen, baina herritar eta inguruko batzuk bertan bildu ginen. Lau segalari, bi taldeetan, gogor aritu ziren 30 minutuko lanean. Gogor edo ahaleginean behintzat. Ondoren dozena bat biltzaile irten ziren belarra bildu eta pisatzeko. Gizon emakumeen artean giro polita jarri zuten. Edu eta Amaia izan ziren irabazleak eurei zorionak eman nahi dizkiet. Orohar lau segalariak zo-

riindu nahi ditut jarri zuten giroa-rogatik. Beste bi segalarien izenak ez dazkit baina berdin zoriondu nahi nituzte. Asko ikasteko duten arren ongi moldatu zirelako.

**Julian.**

#### Ibarrako elizaren argiak

Ibarrako eliza guztiz polita jartzen ari dira. Ingurunea zeharo konpondu zuen, aurpegi lerdena jarri zioten eta orain argiztatu egin dute. Gure herriko eliza zaindu beharra dago eta eskerrak eman nahi dizkiet lan horretan ari diren, langile, apaiz eta Udal ordezkariak. Oso ondo ari zarete lanean eta segi horrela. Animo. Asko poztzen nau iluntzean eliza ikusi eta argiz beterik somatzeak, zilarrezko kanporrea dugula dirudi. Besterik ez. Mil esker.

**Maria.**

#### Kirikiñokoak Belaguan

Belaguatik itzuli berri dira Kirikiño aisialdi taldeko zenbait gazte. Hain igaro zituzten hamar egun Bizkorako bi taldeek: DBH 2. mailakoak uztailearen 7tik 16ra eta DBH 1. mailakoak 10etik 20ra egon ziren Pirineoetako bailara polit hartan.

Oso egun zoragarriak igaro dituzte 90 gazte hauek beraien begiraleekin. Bertan naturaren erdian beraien lagunekin zenbait ekintza egiteko aukera eduki dute: jolasak, dinamikak, mendi txangoak (Ezkaurre mendia), otoiak, gaubelak, erreko bainuak...

Hala ere, hauek ez dira Kirikiño taldearekin mugitu diren bakarrak: Hilaren 31ra arte beste bi talde handi daude Tolosatik kanpo. LH 5 eta 6ko 80 neska-mutil Barrian, eta DBH 3 eta 4ko 50 gazte, berriz, Pirinioetan.

**Kirikiño aisialdi taldea.**

### Hilberriak

#### KONTXI PLAZAOLA ARANGUREN

Une zail hauetan gure besarkadirik handiena



**AZPEITIA**  
2008ko uztailearen 25a

Alazneren lagunak

#### KONTXI PLAZAOLA ARANGUREN

Atzo hil zen, Azpeitian, 60 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Senarra: Ramon Bidezabal; seme-alabak: Amaia eta Joserra, eta Alazne; bilobak: Iker eta Julien, eta gainerako ahaidiek. Haren animaren alde oloitz bat eskaltzen dizuele eta arren etor zaitzete! GAUR, OSTIRALA, eguerdiko HAMA BI ETA ERDIETAN, SORREASUKO SEBASTIAN parrokiako elizan, gorpua bertan dela egingo den hilelata.

Aldez aurretik, mila esker.

**Amets goxuek izen Kontxita**

Helbidea: Hartzubia hiribidea 24, 1. lezkera  
Oharra: Gorpua Azpeitiko beltatikian egongo da.



**AZPEITIA**  
2008ko uztailearen 25a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

902 402 900  
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

tolosaldeko hitza. iragarkilaburrak.com

saltzeko  
erosteko  
eskaintzeko  
eskatzeko  
aurkitzeko  
...



www.iragarkilaburrak.com  
uztarria.iragarkilaburrak.com  
txintzarri.iragarkilaburrak.com  
otamotz.iragarkilaburrak.com  
elgoibarren.iragarkilaburrak.com  
soraluze.iragarkilaburrak.com  
bidasoamedia.iragarkilaburrak.com

ukberri.iragarkilaburrak.com  
oarsosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com  
busturialdeko hitza.iragarkilaburrak.com  
11barri.iragarkilaburrak.com  
uro-la-kostako hitza.iragarkilaburrak.com  
irutxuloko hitza.iragarkilaburrak.com  
goierriko hitza.iragarkilaburrak.com

milaka bisita, egunero

# zure-azoka

**Erregistratu zaitez**  
eta jarri zure iragarkia **webgunean:**

**norbanakoak**  
doan

**enpresak**  
leku eskusiboa

jarri zure  
iragarkia!

Gainera, **ostiralero** paperezko edizioa  
**100.000**aleko zabalkundearekin.



Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanako kideak Zizurkil proiektuaren zundaketa lanen eremuan. IMANOL GARCIA

## «Agintarien jarrera» gogor salatu du Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak

**Zizurkil** » Ertzaintzak prentsaurrekoan bildutakoak identifikatu eta arduradunei espediente zigortzailea ireki zien.

### ASIER IMAZ

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanekoek agintarien jarrera «gogor» salatu zuten atzo Zizurkil. «AHT gelditzea eta eztabaida sortzea» eskatu zuten AHTren zundaketa lanak egiten ari diren lekuan. Bertan *Udaran ere AHTrik ez!* lelopean salaketa ekimen ezberdinen egutegia aurkeztu zuten.

### AHTren aurkako ekimenak

Elkarlaneko kideek «udaran oporrik ez» dutela hartuko jakinarazi zuten eta herritarrei hurrengo egunetan egingo dituzten ekimenetan parte hartzeko eskatu zieten. Atzo Zaldibian «AHTren aurkako akanpada iraunkorra» abian jarri zela aipatu zuten. Gaur bizikletaz bertara joango dira, bizikleta-martxan Tolosaraino itzultzeko. 18:30ean ongiatorria egingo

zaie tren geltokian merienda batekin. Etzi berriz, Ordizian manifestazioa egingo dute 20:00etan, «obren hasiera salatuzko». Uztaileko azken ekimena 29ean, asteartean, egingo dute: «Eskualdeko lurjabe guztiei zuzendutako bilera informatiboa egingo da. Bertan, Elkarlaneko abokatuak eta eskualdeko Elkarlaneko kideak egongo dira, lurjabeek zer eskubide dituzten, espropiazioen aurrean zer egin dezaketen eta beste edozein zalantza argitzeko. Kaltetu guztiak bilera horretan parte hartzera animatu nahi ditugu; izan ere, denen artean harremana sortzea eta une honetan hainbeste behar duten babesa eskaintzea da gure asmoa». Batzarra 19:00etan egingo da Tolosako Kultur Etxean.

### «Dena EAJren eta PSOEn poltsikoak betetzeko»


Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak atzo «agintarien jarrera gogor salatu» zuen, AHT «proiektu inposatzaile bat» dela azalduz. Adibide bezala lurjabeak aipatu zituzten: «inolako eskubiderik ez dutela aurpegiratu, eta baimena

eman ezean, derrigorrez espropiatuko dituztela mehatxu egin diete». Proiektua jasagarria dela esatea Elkarlanaren esanetan «lotsagarria» da: «lurren desertizazioa gertatzeko arriskua egongo da, soilu ikaragarriak jasango ditugu, hainbat harrobi irekiko dituzte, uren bideak aldatuko dituzte eta hori dela-eta, zenbait iturri eta urputzu agortzeko arriskua egongo da. Hori dena EAJren eta PSOEn poltsikoak betetzeko».

### Ertzaintza identifikatzen

Prensaurrekoaren ondoren Ertzaintzako lau auto azaldu ziren Zizurkil Goian. Elkarlaneko kideak gelditu eta identifikatu egin zituzten, prentsaurreko materiala berriz «froga bezala» hartu zuten. Herritarren Seguratasunaren Legea hautsi eta identifikatu egin zituzten, prentsaurrekoaren arduradunei espediente zigortzailea ireki zien.

Elkarlanetik azaldu dutenez, «benetako delitua AHT egitea da eta hori salatzen jarraituko dugu». AHTren aurka daudenak «kriminalizatu» nahi dituztela ere salatu dute.



Lurdes Agirrek eta Pello Egigurenek irabazi dute mariskada. HITZA

## Mariskadaren irabazleak eta Larresorora bidaia

### Leaburu-Txarama

Uztailaren 27an, etzi, herritarrek Larresorara joango dira bi herrien arteko loturari esker.

### A. IMAZ

Tolosako Lurdes Agirre eta Pello Egigurenek irabazi dute Leaburu-Txaramako Larte Azpiko Ekintza Elkarteak antolatutako zozketa. Sari bezala mariskada tokatu zaien. Antolatzaileek eskarrak eman nahi izan dizkie zozketan parte hartu zuten guztiei eta zoriorenak irabazleei.

### Larresorora bidaia etzi

Uztailaren 27an, etzi, Leaburu-Txaramako herritarrek Lapurdira joango dira, Larresorora hain zu-

zen ere. Bidaia bi herrien arteko adixkidetasun loturaren barnean kokatzen da eta bertara egun pasa joan nahi duenak 696 03 58 16 telefono zenbakira deitu beharko du izena emateko edo informazio gehiago lortzeko.

Autobusa 10:15ean irtengo da Leaburutik eta 10:30ean Txaramatik. 12:00etan ongiatorri ekitaldia egingo diete hemendik joaten direnei Larresoroko herritarrek. Zintzurra busti ondoren bazkaria egingo dute eta 18:00etan talo jatea. Ondoren, bertako bertsolari gazteen saioa egingo da. Kantuan Maiana Irigoien, Ximun Kazaubon, Mixel Maitea eta Patxi Iriarte arituko dira.

Leaburu-Txaramarako itzulera bidaia hasi aurretik, Herlaur musikataledearen emanaldia antolatuko dute Larresoron.

## ESAITen Mendi Martxa bi eskualdeetan zehar

**Kirolak** » Euskal selekzioaren aldeko ekitaldia Leitzatik Tolosara mendiz iritsiko da abuztuaren 6ean.

### A. IMAZ

Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldearean Mendi Martxa eskualdeetan barrena ibiliko da abuztuaren 6ean.

Eskualdeetako herritarrei bertan parte hartzeko deialdia luzatu diete antolatzaileek.

### Leitzatik Tolosara

Mendi Martxa Leitzatik 8:00ak inguruan irtengo da. Euskal selekzioaren aldeko oihua Tolosara 17:00ak aldera iritsiko da. Tarteko hainbat herritan ongiatorria egingo zaio aldarriari. Ibarraren kasuan, 16:00etan zeharkatuko du martxak herria eta hainbat eragilek ongiatorria egiteko jendeari plazara agertzeko deialdia egin diete. Ondoren Tolosara joango dira dena.

Tolosan 19:00etan egingo dute ekitaldi nagusia eta ondoren triki poteoan amaituko dute ekimena.

berria bekak  
2008

### Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: 8 beka, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpeginetza arloa: beka bat

### Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietean

### Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko epea: 2008-09-08

Eskara egiteko orria eta beka deialdia [www.berria.info](http://www.berria.info) helbidean dago eskuragarri

berria



Erromeria honetaz gain urtean bitan igotzen dira erromesak Santa Krutzera, maiatzean eta irailean. J. ASTIBIA

## Santa Krutz ermitara erromeria egingen dute gaur

**Erljioa** » 13:00etan meza egingen dute eta ondoren bazkaria izanen da, eta musikak eta dantzak ez dute hutsik egingen.

### NAIARA GARZIA

Gaur, urtero bezala eta Jubilatuko elkarrekin antolatuta erromeria egingen dute Santa Krutz ermitara.

«Herri osoak» parte har dezan

deialdia egin dute antolatzailerik. Meza ospakizuna 13:00etan egingen dute, eta ez 13:30ean, aurreko urteetan bezalaxe. Dena den, goizetik hasita eta meza ospakizuna hasi baino lehen jendea izanen da bertan.

Santa Krutzeko ermita dagoen mendi kaskoa paregabea da egun-pasa egiteko, bertan dauden pagotek, beroa eginez gero, itzal atseginak ematen baitituzte.

Festari hasiera, beraz, 13:00etan

emanen diote, ermitan egingen duten meza ospakizunarekin eta ondoren bazkaria, kanta eta dantza izanen dira bertarantz direnentzat.

Jubilatu elkartetik azaldu dutenez, «bazkaria norberak eraman behar du». Hori bai, edaria, postrea, kafea, kopa eta musika elkarteak jarriko ditu, urtero egin ohi duten bezala.

Nahi duenak oinez igotzeko aukera izanen du eta bestela, jende

heldu dezente igotzen denez, mendiko ibilgailuak dituztenei ezindak eramateko laguntza eskatu dute elkartetik.

Egun honetaz gain, jendea urtean bitan igotzen da Santa Krutzera, bi Santa Krutz egun izaten baitira, maiatzean bat eta irailean bestea eta bai batean bai bestean apaizarekin igotzen dira herritarrak.

### Erromeriaren zergatia

Juan Bautista Irazoki urte askoan Leitzako abadea izandu da, aurtengo kanpora joan den arren eta bera etorri baino urtebete lehenago aritu ziren ermita berritzen eta konponketa lanak egiten.

Ermita auzolanean konpondu ondoren, urtemuga bezala festa bat egiten hasi ziren, eta nahiz eta urte askoan festa egun hau bertan behera utzi zuten, Jubilatuko elkartetik duela zenbait urte berriro festa eguna antolatzen hasi ziren. Auzolanean duela hainbeste urte egindako lana eskertzeko, beraz, urtero erromeria hau egiteko ohi-urte berreskuratu zuten eta aurtengo seigarren urte izanen da Jubilatuko elkarteak jarraian Santa Krutzera erromeria antolatzen duela.

Santa Krutzeko ermitako konpontzen jende askok parte hartu zuen arren, Txokoko Lontxo izan zen buru eta hori dela eta, joan den urtean meza bere omenez egin zuten.

### Erromeria ere auzolanean

Erromeria Jubilatuko elkarteak antolatzen duen arren, bertara hurbiltzen direnak bazkaldu ahal izateko mahaia jarri behar dira, baita aukerak ere eta horretarako alde aurretik igotzen da jendea, denon artean arratsalde festa giroan pasatzeko Santa Krutz ermita ondoko txokoa prestatzeko.

## Laburrak

### Festetako herri afarirako txartelak salgai daude

**LEITZA** » Herriko festak iristear direnez, Leitzako Udalak antolatuta festa bigarren herri afaria antolatu dute lehenengoz. Afaria abuztuaren 12an egingen da, 22:00etan, herriko plazan eta ondoren musika izanen da. Dagoeneko txartelak salgai jarri dituzte ondorengo tabernetan: Gaztañagan, Peritzan, Txokon eta Torrean. Txartela hartzeko epea abuztuaren 5ean amaitzen da eta bakoitzak 25 euro balio ditu.

### 2009ko egutegirako argazki lehiaketa abian

**GIZARTEA** » Tolargik eta Tolosagasa 2009 urteko Tolosako egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian *Tolosa eta bere jaia* gaiarekin. Argazki lehiaketa parte hartu nahi dutenek nahi adina argazki aurkeztu ahal izango dituzte Tolargiren (Rondilla kalea, 34 behe) nahiz Tolosagasaren (Arosategieta kalea, 18 behe) bulegoetan. Irailaren 29a izango da argazkiak aurkezteko azken eguna. Irabazleak argi edo gas fakturaren zenbatekoa jasoko du, gehienez 600 euro, eta 300 euroko beste bi sari ere izango dira.

## T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbola:** 943 006900

**Amarokoko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aitzondo zerb.: 943 693930

### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosalde bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolosa:** 943 650016

**Iurrarendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

## 580 kiloko finala, etzi, Areson

**Soketira** » Finalurrekora bihar jokatu dute Gaztelun eta biharamunean finala, Aresoko frontoi ondoan.

### ERREDAKZIOA

Aurtengo lur gaineko Euskadiko Txapelketako azkenurreko jardunaldia jokatu da bihar Gaztelun. Goiherri A da sailkapenean lehenengoan den asteburuko lehen jardunaldia jokatu ondoren, Erandion. Erandioko taldeak nagusitasun handiz gailendu zitzaion Gaztedi, eta baita Goiherri B eta Aresori ere. Asteburuan finalurrekora eta finala jokatu dituzte, azken hau Areson izanen delarik, igandean.

Joan den asteburuko norgehiagoka eta gero, Goiherri lehenengo doa 4 punturekin, Gaztedi biga-



Aresoko taldea, Lesakan jokaturako 600 kilotako jardunaldian. HITZA

rren 3 punturekin, eta Goiherri A eta Areso hirugarren doaz, bakoitzak 1,5 punturekin.

### Lehenengo jardunaldia

Joan den asteburuan jokaturako lehenengo jardunaldian Erandiokoek indartsu ekin zitoten txapel-

ketari, mendean hartu baitituztuzten gainerako aurkarria.

Txapelketako bi talderik indartsuenek jokatu zuten lehen txanda, Goiherri A-k eta Gaztedik. Lehen tiraldian hasieratik eraman zuen soka beregana Goiherri, eta, 2 minutu eta 47 segundotan irabazi

zuen. Bigarren goian Gaztedi hasi zen tiraldia bereganatzen, baina Goiherri eman zuen soka-kolpe tinkoena, 3 minutu eta 21 segundotan irabazi zuen. Ondoren, Goiherri A-k Goiherri B menderatu zuen, eta azkenik, Areso. Nafarren kontrako lehen tiraldia izan zen, gainera, saioko tiraldirik luzeena (6 minutu eta 10 segundo). Gaztedi nahiko argi nagusitu zitzaion Aresori, baina askoz gehiago kostatu zitzaion Goiherri B menderatzea. Bi tiraldiak irabazi zituzten.

Hirugarren posturako lehia, berri, arratsaldeko bigarren txandan jokatu zuten Goiherri B-k eta Aresok. Aurreneko tiraldian bina faltarekin ziren eta Aresok irabazi zuen. Bigarren tiraldia, ordea, erraz bereganatu zuen Goiherri B-k, eta, ondorioz, berdinketa lortu zuten. Ondoren, biak galdu zuten Gaztedi eta Goiherri A-ren aurka.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Aisia

■ **Tolosa.** Topagunearen udako festa izango da. 18:30ean askaria banatuko dute, eta ondoren, perkusio taldea egongo da.

### Deialdiak

■ **Ibarra.** Abuztuaren 26an koardri- len bazkaria egingo da jaietan. Txartelak salgai egongo dira Sendi Ekintzan hilaren 17an, 23an eta 29an, 19:30etik 21:00ak arte, 22 eurotan.

### Ikastaroak

■ **Tolosa.** Sanblasipiko Gazte Asanblada euskal dantza (fandangoa eta arin arina) ikastaroa antolatuko du udako asteazkenetarako, 11:30etik 13:00etara, Otsabi gazte lokalean, Udaberri dantzari taldearen laguntzarekin.

■ **Tolosa.** Piraguisimo ikastaroak antolatuko ditu Kaxkardi Kultur Elkarteak Txaraman, egun bateko irteerak edo aste osoko ikastaroak. Izen-ematea, 636 638635 eta

677 488910 telefono zenbakietan. Zortzi urtetik gorakoentzat zuzenduriko ikastaroak dira. Irailera bitarte.

### Lehiaketa

■ **Tolosa.** Tolargik eta Tolosagasa- sak 2009 urteko Tolosako egutegi- a osatzeko argazki lehiaketa jarri dute abian *Tolosa eta bere jaiak* gaiarekin. Argazki lehiaketan parte hartu nahi dutenek nahi adina argazki aurkeztu ahal izango dituzte Tolargiren egoitzan, (Rondilla kalea, 34 behe) edo Tolosagasare- nean (Arostegieta kalea 18, be- hea).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.



## Kantari irteteko bigarren aukera

**TOLOSA** • Euskal Herriko hainbat herritan egiten duten bezala, Tolosan ere herritarrak kantatzera kalera irteteko ekimena jarri zuten abian duela hilabete bat. Jende ugari gerturatu zen deia erantzunez, eta hala es-

pero dute Tolosa Kantari ekimenaren aldeko taldeko kideek asteburu honetan izatea. Bihar izango da hortaz, Tolosa Kantariaren bigarren saioa, eta lehenengoan bezala, Tontokalen geratu dira, 12:00etan. i.t.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

**SANTIO JAIK 2008**

**ONDO PASA!!**

**kutxa**



# Villabonako Santio jaiak

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info



## SANTIOREN OMENEZ LEHERTU DA JAIA

**VILLABONA** Musika, dantza, kirola, jokoak,... eta umore ona; guztiak present egongo dira Villabonako Santio jaietan; gaur egun handia izango dute eta ia astebetez jai giroa herri guztian zabalduko da, atsedenek gabe.

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

**hitza** info  
n,  
eskualdeko egunkarian

**harpidetu zaitez!**  
nola?

**902 82 02 01**  
edo  
hitza@harpidetza.info

**AITZOL  
TABERNA**

- Eguneko menuak
- Otartekoak • Pintxoak

Etxeondo, 1behea • Villabona

*Jai zoriotsuak pasa!*

**ETXE ITURGINTZA S.L.**

*Jai zoriotsuak pasa!*

Etxeondo, 3 • Tel.: 943 69 24 49  
**615 79 77 89**  
20150 VILLABONA (Gipuzkoa)

Era guztietako konponketak:  
larrua, ohiala...

**Begoñ**  
konponketak

Kortinak eta kojinek  
ere josten ditugu

Kale Nagusia 43 • BILLABONA • Tel.: 943 69 36 12

*Janari Denda*

**Pepi**

Jai zoriotsuak  
pasa!

*Etxe*  
Barazki eta Fruituak

Berria, 56  
BILLABONA  
Tel. 943 69 16 38

# USADIOAK BERRESKURATUZ



Villabonan egin zen lehendabiziko konpartsan, duela 16 urte, atera ziren herritarrak. HITZA

**Inude eta artzaien konpartsa** » 5 urte eta gero, ekitaldi berezi hau berreskuratu dute, Oinkari dantza taldeak bultzatuta.

«Herri giroa indartzea eta kolore ezberdineko jendeak egun batez bat egitea». Hauek dira Udaletik Inude eta artzainen konpartsa berreskuratzeko izan dituzten arrazoi nagusiak. Bost urte eta gero, ohiturari eutsi nahi izan diote eta etzi, igandearrekin, emanaldi berezi honetaz gozatu ahal izango dute billabonatarrek.

**Antolakuntza «oso gogorra»**  
Oinkari dantza taldea arduratu da guztiaz eta «lan handia» dela aitortu du Oinkariko Eneko Arteagak, «antolakuntza oso gogorra» delako. Udaletik esfortzu berezia eskatu ziguten, «herri giroa bultzatzeko» eta aurrera atera nahi izan dugu. «Bultzatzaile bezala aritu gara Oinkarikoak baina esan beha-

rra dago antolatzen herritar guztiak parte hartu dutela, jendea oso ondo aritu da».

Abenduan ekin zion Oinkari

**Dantzan ez zekitenek ere aukera izan dute ikasteko, dantzaldia ez baita oso konplexua**

dantza taldeak Inude eta artzainen konpartsaren antolaketa lanei. «Orduan ikusi genuen jendeak gogo handia zuela hau aurrera ateratzeko eta horrek animatu egin

gintuen». Guztira 150 lagun inguruk eman dute izena, guztiak 15 urtetik gorakak. «Hutsune handiena 30 urteko belaunaldian ikusi dugu,

**Herritar guztiak lagundu dute konpartsaren antolaketa, jendea oso ondo aritu da**

gainontzekoan gazte eta heldu ugari daude».

Arteagak berak azaldu duenez, Aste Santuen ondoren hasi ziren entseguenik. «Astean behin, aste-


lehenero, ordubetez egiten dugu entsegua, baina seriotasunez». Astean zehar herrian ez daudenentzat larunbatetan bigarren entsegua egin izan dute, bertan 15 lagun inguru elkartzan ziren. «Gauza guztiakin bezala, batzuk errazaga hartzen dituzte pausoak; dena den, dantzan ez zekitenek ere aukera izan dute ikasteko, ez dantzaldian egingo duguna ez baita oso zaila».

**Zer ikusiko da inude eta artzaien konpartsan?**

Eneko Arteaga dantzariak azaldu duenez, emanaldiaren ardatza dantza izango da, dantzariak Guztira 144 ariko dira.

Bigarren osagarria konpartsan danborrada izango da. Agustin Laskurain billabonatarren zuzendaritzapean, 40 lagunek emango diote doinua dantzari.

  
**Santioak ondo pasa!**  
K/Berria, 15 • Villabona  
Tel.: 943 69 22 19

  
**ondo pasa!**  
Erniohea 3  
Billabona  
Tel.: 943 69 33 75

Gora Santioak!  
**Villabona optika**  
Kale Berria 23A  
Villabona  
943 11 18 40



**NahikideKIO**  
Tel.: 943 69 64 84  
Faxa: 943 69 33 59  
Larrea auzoa, 8  
20150 BILLABONA

**Santioak ondo pasa!**

**MUSTURINEA**  
  
**Festa zoriontsuak pasa!**  
Nagusia, 14 • Villabona  
Tel.: 943 69 68 01

**ILEPAINDEGIA**  
  
**Ilepaindegia - estetika**  
Errota 1 behe esk.  
VILLABONA • Tel.: 943 696 292





144 dantzari, 40 lagun danborradan, 3 txistulari, txaranga eta pertsonaiak aterako dira kalera. HITZA

Honi guztiari lotuta hiru txistulari eta txaranga ere ariko dira.

Hirugarren eta azken osagarria pertsonaiak izango dira. Denetarik ikusteko aukera egongo da bertan, alkatea, medikua, arrantzaleak... Bakoitzak bere pertsonaia ordezkatuko du.

Honekin guztiarekin ohitura berreskuratu nahi izan da. Oinkarientza Kresala taldea izan da erreferentzia. «Euren aholkuak jarraituz osatu dugu emaladiak; guk ukitu pare bat eman dizkiogu», azaldu du Arteagak.

**Jantzien berezitasunak**

Inude eta artzairen konpartsaren berezitasunetako bat dantzariak soinean dituzten jantziarena da. Inudeen kasuan, soineko luze bat jantzi-

tziko dute. Artzaiek (mutilek), berriz, txuriz jantzita joango dira eta txaleko gorri bat eramango dute.

Inudeen jantziak Lezo eta Bera-ko dantza taldeei esker lortu dituzte. «10 euroren truke lortu dituzte dantzariak jantziak, alokairu moduko bat da». Mutilen txalekoak Oinkari dantza taldeak egin ditu, «bereziak direlako, izerdiarekin eta bestela kolorea joaten zaie». Ikusgarria izango da, beraz, 144 lagun hauek dantzan ikustea, txistu, txaranga eta danborren musikak alatuta.

**«Zergatik berpiztu konpartsa?»**

Lehenengo inude eta artzairen konpartsa duela 16 urte egin zen,

baina 2003. urteaz geroztik ez da errepikatu. Udala herri giroa bultzatze aldera, konpartsa berreskuratzeko garrantziaz ohartu zen. Eneko Arteagak bat egiten du iritzi honekin: «Konpartsarekin lortu duguna da herriko jende guztia elkartzea, den kolorekoa izanda ere».

Jaiak beti izaten dira bereziak herritarrentzat baina «ekitaldi bat elkarrekin egin ahal izatea are eta garrantzitsuagoa dela uste du;

une horretan gainontzeko guztiaz ahaztu egiten zara, egun polita da eta herri guztia elkartu egiten da».

**Oinkarientzat «oso berezia izan da konpartsa antolatzea»**

Eneko Arteagak «oraindik azken ukituak finkatzen» ari direla aitortu eta «oso gogorra» izan dela ere zehaztu du. «Eromena da, hainbeste parte-hartzailearentzat jantzi guztiak lotzea, entseguekin serio

**» HAINBAT DATU**

**ZER.** Inude eta artzairen konpartsa.

**NOIZ.** Etzi, igandea.

**OSAGARRIAK.** 144 dantzari, 40 lagun danborradan, 3 txistulari, txaranga eta pertsonaiak.

**EGITARAUUA:**

■ **11:00.** Herri konpartsaren desfilea izango da auzoz auzo ikusgai; bi orduko emanaldia eskainiko dute 144 dantzari, 40 laguneko danborradak, hiru txistulari eta txarangako kideek.

■ **14:00.** Bazkari herrikoia egingo dute.

■ **17:30.** Plazaruntz abiatuko dira elkarrekin.

■ **18:00.** Konpartsaren emanaldia plazan.

mantentzea, guztia koordinatzea,...

Hori dela eta, zaila ikusten du inude eta artzairen konpartsa urtero-urtero antolatu ahal izatea. «Agian bi urtez behin egin daiteke, baina bestela zaila da...».

Hala ere, eurentzat «oso berezia» izan dela baieztatu du. «Ez genuen uste jendearen erantzuna hain ona izango zenik. Batez ere 15 urteko jendea oso ondo aritu da, bakoitzak bere bikotea osatuta agertu dira entseguetara, eta hori ez genuen espero, antolakuntza lanak asko erraztu dituzte». Etzi emango du fruitua, beraz, hilabeteetan eginko lanak.

**MAITE JANARIDENDA**  
Ondo pasa jaetan!  
kale nagusia, 11  
Villabona  
Tel.: 943691822

Villabonako garagardo azokan zuekin!  
**VIKER**  
943 69 40 01  
Ernioea, 19 • Villabona

**hitza**  
elastiko berriak salgai  
haur, gazte eta helduentzat  
elastikoarekin  
**poltsa opari!**  
Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.

Billabona  
**CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA**  
Santioak ondo pasa!

**AMASA**  
Okindegia-Kafetegia  
K/Berria • Villabona • 943 69 38 31

**ABURUZA** Eraikuntzak, S.A.  
Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

## ARANBURU ardotegia

ARDOAK • SAGARDOA • KONTSERBAK • LIKOREAK, etab.

Etxerainoko Zerbitzua

Jai zoriontsuak  
opa dizkizuet!

Santio kalea, 4 • VILLABONA • Tel.: 943 69 13 24

## DESACRISTAL

Autoarentzako kristalgintza Muntaia, salmenta eta konponketak Autoa, furgoneta, kamioia nahiz autobusa

Baimendutako laminen instalazioa SOLAR-CHECK

Ibaiondo bailara, 17 - 8. pabilioia - N-1 errepidea - IRURA  
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

## EIZMENDI ARMATEGIA BIROLDENDA



ONDO PASA JAIETAN!

Kirol gaiak konpontzeko lantegia Aukera handia eskopeta eta kartutxotan

Berria, 19 • Billabona  
Tel.: 943692623 • Faxa: 943693044

## IZASKUN

OINETAKOAK

Santiago kalea, 2 behe • VILLABONA  
Tel./Faxe: 943 248 580

## JANARIDENDA

## PILAR

Santioak ondo pasa!  
Larrea, 9 • Villabona  
Tel.: 675 713637

**Itzalpe**  
Edarategia Jateetxea  
Festak ondo pasa!  
Berria, 29 • Billabona • Tel. 943 69 06 23

**EKO-TOLOSA**  
FRUTATEGIAK ondo pasa santioak!  
www.ekotolosa.com  
Tel.: 943 69 30 47 • Nagusia, 3 • Villabona

**MIGUEL-MARU**  
FRUTATEGIA  
Santioak ondo pasa!  
Kale Berria, 13 • BILLABONA  
943 69 21 50

**ALBIZU** **KIROLAK**  
Nagusia, 2 • Billabona  
Tel.: 943 69 31 31  
faxe: 943 69 31 31

**BRONTXILLO** Harategia • Arraindegia  
943 69 68 23  
Santio, 4 Villabona  
Santioak ondo pasa!

Bihar izango da Euskal Jaia herriko plazan, 'Erromeri giroan euskara ahoan' lemapean. Kataluniako Colla Vella castells taldekoen ikuskizuna da aurtengo berezitasuna, Tapia eta Leturia eta herri afariarekin batera.

# Erromeria oinarri hartuta

**D**uela hiru urte hasi ziren santioetan Euskal Jaia egiten, «herriko kolore ezberdinak festaren inguruan elkartzeko helburuz». Oinkari dantza taldea eta herriko elkarte gastronomikoak arduratzen dira egun berezi hau antolatzeaz, eta azaldu dutenaren arabera, aurtengoa, hau da, biharkoa, «orain arteko handiena izango da». *Erromeri giroan euskara ahoan* lemapean festa giroa izango da nagusi herriko plazaren bueltan.

Bazkalostean hasiko da festa zantzarren kalejirarekin. Ondoren, sagardo eta pintxo banaketa izango da plazan, eta segidan «aurtengo jaietako apustu handiena», Kataluniako Valls herriko Colla Vella castells taldearen emanaldia. Oinkari taldekoek Kataluniara dantza emanaldi bat egitera joan zirenean ezagutu zituzten, «asko gustatu, eta herrira ekartzea pentsatu genuen. Castells taldeen arteko lehiaketak ohikoak dira han, eta hona datoztenak lau onenen artean daude». Ordu eta laurdeneko saioa egingo dute, eta 6-7 gaztelu egingo dituzte. «8 solairukoa egingo dutela ziurtatu digute, eta agian 9koa egitera ere ausartuko omen dira».

Plaza erdian, sagardo eta pintxo dastaketa dagoen bitarten hasiko dira gazteluak eraikitzen. «Jendearen tartean sartzen dira, eta bat batean egiten dituzte, oso ikusgarria izaten da; pentsa, agian udal-txearen gainetik ere jarriko dira gaztelu osoa eraikitzean; gainera, ikusita azken solairura 6-7 urteko haurrak igotzen direla, benetan ikusgarria izaten da». Antolatzaile festez zerbaitekin oroitu bada Colla Vella castells taldekoen emana-



Colla Vella castells taldekoak emanaldi batean. HITZA

naldiarekin izango dela, ez baita ohikoa hemen, eta ez baita berdina telebistaz edo zuzenean ikusi».

Euskal Jaia arratsalde osoa gertutik biziko dute Colla Vella castells taldeko 150 lagunek, «hemengo festak eta ohitura ezagutzeko, eta bi herrien arteko harremana sortzeko aukera polita izango da».

### Tapia eta Leturia erromerian

Ikuskizun bereziaren ostean, beste berezitasun bat etorriko da, izan ere, Tapia eta Leturia ariko dira erromerian, biak elkarrekin, garai batean egin ohi zuten bezala. «Oso berezia izango da, ez baitute normalean egiten, eta Villabonan

egingo dute guk hala eskatu diegualako».

Arratsalde osoan gelditu gabe ekitaldiez gozatzen egon ostean, indarberritzeko unea iritsiko da, plazan egingo duten herri afarian. «Aurten berrikuntza batekin dator, izan ere, zikiri jatea izaten zen orain arte, baina aldatu egin dugu, eta bildotsa jateko aukera izango da; bestelakoan, menua antzerakoa izango da». 10 sagardotegi egongo dira, urtetik urtera handituz doa, beraz, kopurua, iaz 9 baitzuden. 1.200 botila sagardo edango dituzte, eta 600 pertsona espero dituzte bilduko direla mahaiaren inguruan. Antolatzaileek ekitaldi hau posible egiteko euren laguntza eman duten merkatarien lana eskertu nahi izan dute. Afarira joan nahi dutenek eskura dituzte txartelak 25 euroren truke ohiko lekuetan.

Guztiek ederki jan ostean festa giroarekin jarraitzeko gonbita Tapia eta Leturiak egingo dute, gauerdiko aldera, bigarren erromeriarri ekingo baitiote, baina, kasu honetan, talde osoarekin.

### Festetako ardatz bilakaturik

Santioetako erreferentzi bihurtu dela Euskal Jaia diote antolatzaileek, eta «herritarrak zain egoten dira egun hau noiz iritsiko». Aurteko urteetan bezala, jendea garraiko jantziekin jantera animatu nahi dute. «Lehenengo urtean deialdia egin genuen baserriar jantziekin joateko, eta erantzuna oso ona izan zen, eta urtetik urtera handituz joan da, beraz, aurtengoa hala izatea espero dugun».

**SAHATSA BELARDENDA**  
Kale Nagusia, 13  
943 69 40 63  
Errota, 5  
943 69 42 79  
Konsulta Naturistak  
Dietak doan  
BILLABONA

**OGI-GOXO**  
Okindegi eta Gozotegia  
jai zoriontsuak pasa!  
Kale Nagusia, 26  
Tel.: 943 69 32 94  
Billabona

**Bidaia Agentzia bidaide**  
Erniobeia, 6 behea  
VILLABONA  
943 69 26 93  
Ondo pasa festak!